

GURE IRRINTZIAK DARRAI NUESTRA VOZ SIGUE SONANDO

EAJ-PNVko Emakume Abertzale Batzaren 100. urteurrena
100 aniversario de Emakume Abertzale Batza de EAJ-PNV



Martxoak 8
Emakumeen Nazioarteko Eguna





GURE IRRINTZIAK DARRAI


EAJ-PNVk berdintasuna babesten du eta feminismoa eta aniztasuna aldarrikatzen ditu. Denbora luzea darama hori egiten. Ehun urte luze. Gaur, duela mende bat, 1922an, gure Alderdiaren eskutik **euskal emakumeen lehen elkarte politikoa sortu zen: Emakume Abertzale Batza (EAB)**. Emakumeek osatutako talde hark bateratu zituen euskal emakumeek gizartean parte hartzeko zuten asmo eta gogoak; lan sozial eskergea egin zuen kulturgintzan, hezkuntzan, elkarteen esparruan eta euskararen normalkuntzan; eta aktibitate politiko etengabeari eutsi zion herrigintzan. Emakume haiek demokrazian sinesten zuten eta Euskal Nazioa zuten Aberri. Garai benetan zailak izan ziren haiek, baina, egoera hartan ere, beren ideiak aldarrikatu eta defendatu zituzten.

Ordutik aurrera, eta mende oso bat igaro da, emakumeen ahotsak jarraitu du EAJ-PNVren baitan entzuten. Hortik dator Martxoaren 8rako aukeratu dugun goiburua: **“Gure irrintziak darrai”**. EABko aitzindari haiek omentzeko goiburua da eta, gainera, EAJ-PNVk aldi honetan benetako berdintasun eraginkorraren alde egin duen lana aldarrikatzen duena. Tributu eta borroka honen parte izatera animatu nahi ditugu emakume guztiak Emakumeen Nazioarteko Egunera begira. Nola? Oso erraza da: emakumea bazara, zu ere ager zintezke gure kanpainaren kartelean, zure aurpegia jarriz aitzindari haien aurpegi ondoan, eta beren irrintzia, zure irrintzia, argi eta ozen entzun dadin Martxoaren 8an... eta urteko gainerako 364 egunetan.

Animatu eta urratsa eman ezazu zure ahotsa, zure irrintzia Sare Sozialetan entzun dadin.

Nola egin dezakezun?

1. Argazkia atera zure aurpegiaren eskuineko profilari.
2. Bidali prentsa@ej-pnv.eus helbidera.
3. Zure argazkia jarriko dugu jarraian erakusten dugun kartelean.



4. Eta kartela bidaliko dizugu zure argazkiarekin, zure Sare Sozialetara igo dezazun **#GureIrrintziakDarrai** eta **#NuestraVozSigueSonando** traolekin.
5. Sare Sozialik ez baduzu, eta nahi baduzu, bidali zure argazkia prentsa@ej-pnv.eus helbidera eta zure irudia eramango duen kartela EAJ-PNVren Sare Sozialetara igoko dugu.